

## **Martin Ugalde: "Euskal Herrian irrikaz egoten ziren Venezuelan idazten genuena irakurtzeko"**

Amagoia Mujika

*Euskaldunon Egunkaria*, 2000-04-29: 4.

Memorian argi-argi ditu gorderik gerra ostean erbestean izandako gora-beherak. Baita itzularokoak ere. han eta hemen bizitzakoaz hitz gutxi batzuk besterik ez dira hauek. Garai hartako lekukotasun handi baten zati txikia.

– Venezuelari zor diogun idazlea omen zara.

– Bai, hala da. Venezuelara joan aurretik ez nekien idazten. Nik ikusten nuen idazle izan behar nuela, baina ez nekien nola idatzi, zer esan, ez nuen nori begiratu. Venezuelan ezagutu nituen kultura eta ereduak. Hango erreferentziak ziren nireak, ez hemengoak, 1947an iritsi nintzen hara, eta 25 urte nituen. Han ere jan egin behar nuen, eta zortez, kazetaritza aurkitu nuen lan ordaindu bezala.

– Lehen urratsak hango gaztelanian egin zenituen.

– Kontura nintzen beste herri batean nengoela, beste kultura batean, eta beste kultura hori nirera eraman behar nuela. Eta hango modura idazten hasi nintzen, komunikatzeko idatzi behar nuen eta. Euskaraz barrutik idazten hamar urte geroago hasi nintzen, pixkanaka.

– Caracasko Euskal Etxean berehala topatu zenuen lana. Horien artean aldizkarien argitalpenak eta geroago zuzendaritza. Ardura asko zenuten Euskal Herriari begira.

– Bai, jakina. Gure herriari buruzko idatziak egiten hasi ginen. Euskal Herriarekin ez genuen ia harremanik. Baina guk idatzitakoak Amerika osora zabaltzen genituen, eta baita Europara ere. Ameriketan eta Europan zeudenekin harremana genuen. Euskal Herrian irrikaz egoten ziren Venezuelan idazten genuena irakurtzeko.

– 1968an, itzuleran, zer topatu zenuen kultura alorrean?

– Ez zegoen ezer. Pentsa. Behin etorri zitzaidan merkataritza Ganberako arduraduna, argitalpen ekonomiko baten barruan Euskal Herriko historiari buruz idazlan labur bat atera nahi zutela eta. Nire hauxe atera zitzaidan: "Ni atzerritik hona etorri, eta nire eskatu Euskal Herriko historiari buruz idazteko? Ez al dago beste inor?". Hasi nintzen bila eta bila. Oso gauza gutxi zeuden, asko begiratu ondoren aurkituak. Azkenean, pentsatu nuen: "Nork erakutsiko dit Euskal Herriaren iragana On Jose Migel Barandiaranek baino hobeto?" Inork ez zuen ezer egin lehena. Kazetari nintzen aldetik, Barandiaranen eta beste hainbaten elkarrizketak bilduz egindako lehen historia lana izan zen hura. Historian bezala, denetan zegoen lehortea.